



Bulent KILIC | AFP



IKUSMIRA

BESTE PALAKADA BAT DEMOKRAZIAREN HILKUTXARA

Beren jaioterrian ez zieten onartzen gizakiak izanik beraien ere giza eskubideak dituztela, baina pertsona horien historia ez zitzaigun iristen. Sirian, Afganistanen, Iraken eta beste leku askotan ez dago duintasunez bizitzetik. Herritar ausartenek, argienek, egoera hobetu nahian protesta egitean, egurra baino ez dute ezagutu.

Ihes egin zuten. Europako bidean, polizien gas negar-eragileak (irudia igandean Greziako Idoimenin hartutakoa da) egin die ongietorri tristea. Momentu batez eskubiderik ezagutzen ez zaien gizaki horien aurpegiak eta istorioak ezagutzeko aukera izan dugu. Baina aurki desagertu egingo dira gure pantailetatik, bestelako izenen bat jarriko dieten atxilotze zentroetara eramango baitituzte. Eta ahaztu egingo ditugu. Eta Baxar al-Assad bezalako tipoek diseinatuko dute beren herrialdeen geroa. Eta Europako agintariak beraiekin negoziatuko dute. Guztion artean, beste palakada bat botako dugu demokraziaren hilkutxaren gainera. joseangel.oria@gaur8.info